



EAS-EZE 2019 EUSKAL ARTE GARAIKIDEA NAZIOARTEKOTZEKO PROGRAMA, BITAMINE FAKTORIAK SORTUA

EAS-EZE deialdian Artistak nazioartean ezagutzera emateko deialdi irekia da honako hau eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuak dauden artistei zuzenduta dago. Proiektua deialdiaren ebazpenaren datatik hasi eta Argentinara bidaiatu arteko denbora-tartean burutu beharko da eta Bitamine Faktoriaren egoitzan gauzatzeko aukera dago, nahi izanez gero. Ondoren, 15-20 eguneko egonaldia egingo da Argentinako Buenos Aires hiriburuan, kultura garaikidean erreferente diren hainbat egoitzetan. Egonaldian zehar, bertako erakundeekin jarduerak egiteko egutegi bat izango du artistak: onuradunak bere lana hainbat museotan, galeriatan eta aretoetan erakusteko aukera izango du, besteak beste. Gainera, egoiliarren jarduera artistikoetan eta esperimentaletan parte hartuko du Buenos Airesen, erakusketa, mahai-inguru, eztabaida, *workshop* eta topaketa desberdinetan bertako artista eta kolektiboak ezagutzeko aukerarekin. Deialdiaren bitartez, artista egoiliarrari lanaren sorkuntza prozesuan, ikerketan eta ondorengo nazioarteko zabaltze prozesuan baliabideak eta erraztasunak eskaini nahi zaizkio, etekina atera diezaion.

1. XEDEA

1.1. Bitamine Faktoriak, euskal arte garaikidea nazioartekotzeko programaren esparruan, hautaketa prozesu baterako deialdia egiten du laguntza bat emateko, arte ikerketako proiektuak garatzeko eta gauzatzeko helburuarekin.

1.2. Programa zuzentzen den eremu artistiko-kulturalak ez dira mugatzen diziplina zehatz batzuetara. Diziplina hauek aintzat hartzen dira, besteak beste: arte plastikoak, ikus-entzunezko arteak, performance-a, hiriko esku-hartzea, diseinua, soinuazko artea eta abar.

1.3. Hauek dira programa honen asmoak: artearen ikerketa eta ekoizpena bultzatzea, sortzaileen sustapenean laguntzea eta artisten nazioarteko mugikortasuna ahalbidetzea.

2. GAUZATZEKO EPEA

Sorkuntza prozesua 2019ko martxotik urrira bitartean garatuko da eta egonaldia 2019ko urrian edo azaroan izango da, 15-20 eguneko iraupena izango duelarik.

3. ONURADUNA

3.1 Programa honetako onuraduna, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den eta Argentinako arte ikerketa proiektu bat Buenos Aires Hirira esportatzeko asmoarekin garatu nahi duen pertsona oro izan daiteke.

3.2. Eskatzaileek prestakuntza eta/edo ibilbide artistiko egiaztatua eduki beharko dute artearen, diseinuaren edo kulturaren eremuan.

3.3. Gehienez ere, eskabide bakar bat aurkeztu ahal izango da pertsona eta deialdi bakoitzeko.

3.4. Baldintza hauei ezarritako muga bakarria indarrean dagoen legediak ezartzen diotena da.

3.5. Deialdiaren onuraduna kolektibo bat izanez gero, diru-laguntza taldeko pertsona bakar bati emango zaio.

4. ZUZKIDURA EKONOMIKOA ETA BESTE BITARTEKOAK

Bitamine Faktoriak eskaintzen duen laguntza honela zehazten da: hegazkin-txartela, ostatua, mantenua eta lekualdatzeak (350 euro arte), 1.000 euro garbiko ordainsaria, Bitamine Faktoriako egoitzan lan egiteko gunea eta bitartekoen lagapena apiriletik urrira bitartean, eta laguntza eta gertuko jarraipena deialdi osoan zehar, 500 euro ekoizpen gastuetarako, proiektuaren emaitzaren katalogoa eta bideoa, muntaia lanetan laguntza, eta proiektuaren ekoizpena eta kudeaketa.

5. ESKAEREN AURKEZPENEA ETA EMAKIDAREN JAKINARAZPENEA

5.1. Eskera deialdi honen argitaratze data eta 2019ko otsailaren 18ra bitartean aurkeztu beharko dira. Eskera aurkezteko epea amaitzen denean, ez da inolako hautagaitzarik onartuko.

5.2. Eskeren aurkezpena online egingo da; horretarako, Bitamine Faktoriaren webgunean dagoen eskaera formularioa bete beharko da: www.bitamine.net estekan, deialdien erlaitzean.

5.3. Gehienez ere, 20 laneguneko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik, idatziz jakinaraziko zaio eskatzaile bakoitzari hautaketaren emaitza.

5.4. Onuradunaren izena Bitamine Faktoriaren webgunean argitaratuko da eta programako koordinatzaileak zuzenean harremanetan jarriko dira honekin. Laguntzaren onarpena dokumentu baten sinaduraz gauzatuko da.

5.5. Prozedura honekin lotutako kontsultak enter@bitamine.net posta elektronikoaren bidez kudeatuko dira.

6. ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA

6.1. Eskaera egiteko, eskaera formularioa bete beharko da, www.bitamine.net webgunean.

6.1.a. Curriculum vitae artistikoa (gehienez 5.000 karaktere), azken urteetan egindako lanei buruzkoa, webgunean, irudien, bideoen eta abarren gaineko aipamenekin.

6.1.b Aurkeztutako proiektuaren deskribapen testua (800 karaktere gehienez), artistaren statement-a edo aitorpena (500 karaktere gehienez) eta biografia laburra (800 karaktere gehienez). Testu hauek euskaraz eta gazteleraz bidali behar dira, eta komunikaziorako erabiliko dira proiektua aukeratuta suertatuz gero.

6.1.c. Garatu nahi den proiektuaren dosierra (PDF gehienez 3 MB) irudiekin lagunduta. Gainera, Buenos Aires Hirira eramateko erakusketa materialen proposamena gehitu beharko da, esportagarria izan behar duela aintzat hartuz.

6.1.d. Aurkeztutako proiektuaren lan-egitasmoa eta egutegia, behar fisikoak eta teknikoak azalduz (gehienez 4.000 karaktere).

6.1.e. Eskaria Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean bete beharra dago. Euskaraz egitekotan, gaztelaniaz edo ingelesez itzulpena gehitu beharko da nazioarteko epaimahaiak proposamena behar bezala ulertu eta ebaluatu ahal izateko.

6.2. Hautatzen den eskatzaileak ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko du:

6.2.a. Nortasun agiriaren kopia (NANA edo pasaporte).

6.2.b. Banketxe datuak (IBAN nazioarteko kodea barne), diru-laguntzaren sarrera egiteko.

6.2.c. Onarpen konpromisoa, behar bezala beteta eta sinatuta.

7. HAUTATZEKO PROZEDURA ETA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

7.1. Diru-laguntza hauek konkurrentziazko lehia erregimenean egingo dira, objetibotasun, gardentasun, berdintasun eta diskriminazio-eza printzipioekin bat etorritik.

7.2. Balorazio batzorde batek ebatziko du deialdi hau, Bitamine Faktoriaren taldea buru delarik. Batzordea osatze aldera, proiektuko koordinatzaileek hainbat artista, kultur kudeatzaile eta/edo komisario izendatuko dute.

7.3. Batzordearen hautaketa apelaezina izango da eta hari egokituko zaio oinarri hauetan aurreikusten ez diren abagune guztiak.

7.4. Laguntzaren onuradunak ebaluazio irizpide hauen arabera aukeratu dira: a) proiektu artistikoaren originaltasuna eta izaera berritzailea (%50); b) eskatzailearen curriculum edo ibilbidea (%25); c) proiektuaren egokitzapena bitartekoekin eta garatzen den testuinguruarekin (%15). d) eskatzailearen bitartekaritza gaitasuna (%10).

7.5. Batzordeak gehienez ere 3 eskatzaile finalista elkarrizketatuko ditu 7.4 baloratzeko irizpideetako d) atala neurtzeko.

7.6. Batzordeak deialdia eman gabe utz dezake.

8. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

8.1. Proiektua eskabidean aurkeztutako lan egutegian ezarritako epeetan garatzeko konpromisoa hartzen du onuradunak, baita egonaldia amaitzen duenean memoria justifikatzailea ematekoa ere. Ezinbestekoa da memoria justifikatzailea aurkeztea ordainsariari dagokion azken ordainketa jasotzeko.

8.2. Bitamine Faktoriako lantegiko instalazioak egoki erabiltzeko eta esleitzen zaizkion lantokia ekoizpen artistikorako gune gisa soilik erabiltzeko konpromisoa hartzen du onuradunak. Beraz, baztertzen da etxebizitza eta bestelako gisara erabiltzea (biltegia, gordailua, etab.).

8.3. Lan egiteko tokian edo Buenos Aireseko egoitzako guneetan esku-hartzeren bat egin behar izanez gero (pintatu, zuloak egin edo beste edozein egokitzapen) programako koordinatzaileari eskatu beharko zaio horretarako baimena, eta onuradunak bere gain hartuko du gunea leheneratzeko ardura, egonaldia amaitzen denean, hasierako egoerara itzultzeko.

8.4. Egonaldian ekoiztutako proiektua hedatzen eta erakusten duen orotan, onuradunak aipatuko du haiek programa honen esparruan egin direla, ondoko aipua erantsiz: "Bitamine Faktoriaren EAS-EZE 2019 Euskal Arte Garaikidea Nazioartekotzeko Programaren esparruan egindako proiektua".

8.5. Onuradunak baimena ematen du bere izena aipatua izan dadin baita bere obraren erreproduktzio grafiko erabiltzeko ere Bitamine Faktoriak eta bere kolaboratzaileek egoki jotzen duten eta EAS-EZE programarekin lotuta dagoen edozein hedapen edo argitalpen motarako.

8.6. Onuradunak Bitamine Faktoriaren arauak beteko ditu, lan ordutegi eta dinamiketara egokituz; horrez gain, begirunezko portaera izango du eta gune komunak zein instalazioak errespetatuko ditu. Horrela, guztiz debekatuta dago produktu toxikoekin lan egitea eta/edo baimendutako mailaren gainerako zarata eragiten duen edo gunerako eta erabiltzaileentzako arriskutsua den industria makineriarekin lan egitea.

8.7. Onuradunak konpromisoa beteko du hedapen, ekoizpen guneekin eta helmuga den hiriko (Buenos Aires hiria) instituzioetako egoitzarekin lotuta dagoen edozein jarduerarekin, hautatutako artistaren adostasunarekin aurretik zehaztutako programaziorekin, ordutegirekin, eperekin eta aurretik adostutako ekoizpenekin.

8.8. Onuradunak Buenos Aires hirian bere egonaldia estaltzen duen bidaia-asegurua kontratatzeke erantzukizuna izango du.

9. BITAMINE FAKTORIAREN KONPROMISOAK

9.1. Bitamine Faktoriak gune bat lagako dio onuradunari internet wifi konexioarekin, behar izanez gero.

9.2. Artista onuradunari, 1.000 euroko (garbi) ordainsaria emateko konpromisoa hartzen du Bitamine Faktoriak.

9.3. Bitamine Faktoriak onuradunari ahal den neurrian laguntza eskainiko dio beharrezko material eta baliabideak lortzeko baita sor litezkeen mota guztietako premiak konpontzeko ere, esportazio proiektua prestatzeko garaian.

9.4. Bitamine Faktoriak onuradunaren proiektua ahalik eta hoberen garatzen lagunduko du, onuradunaren eskura ahal duen informazio eta bitarteko guztiak jarriz, aurrekontuetako eta pertsona-baliabide mugen barruan.

9.5. Bitamine Faktoriak hautatutako artistak helmugako hiriko sare artistikoaren barruan sartzeko konpromisoa hartzen du, hainbat topaketa eta jarduera antolatuz.

10. ORDAINKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

10.1. Ordainsariaren %50eko ordainketa aurretik egingo da eta gainerako %50, egonaldia gauzatu ondoren, memoria eta gastuen justifikazioa aurkeztu ostean. Bidaiaren laguntza-gastuak (hegazkin-txartela, ostatua eta mantenua) Bitamine Faktoria berak egingo ditu, onuradunaren adostasunarekin. Mantenerako dirua, Buenos Aires Hirira bidaiatu aurretik banku transferentzia baten bitartez ordainduko zaio artistari.

10.2. Ordainketa egiteko, ordainagiriak aurretik aurkeztuko dira eta dagozkion atxikipen fiskalak egingo dira. Ordainketa egiteko, transferentzia bat egingo da onuradunaren banketxeko kontura.

10.3. Emandako laguntzen justifikazioa egonaldia burutu eta hurrengo hilabetean egingo da, egin den proiektua justifikatzen eta dokumentatzen duen memoria batean. Memoriaren xedea laguntza ematean onartutako helburuen betetzea justifikatzea da eta, hala badagokio, ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzea. Memoria aurkeztea beharrezko baldintza izango da programarekin lotutako laguntza ekonomikoaren azken ordainketa jasotzeko.

10.4 Artistak egonalditik itzuli eta hiru asteko epean EAS-EZE programaren katalogoan jasoko diren bi testu bidali beharko ditu. Lehenengoak artistak programan bizitako esperientziari buruzko ikuspuntu pertsonala jasoko du (2.000 karaktere gehienez) eta bigarrenak proiektuaren nondik norakoak bilduko ditu (3.500 karaktere gehienez)

11. EZ BETETZEA ETA BESTE GOGOETA BATZUK

11.1. Oinarri hauetan ezartzen dena ez betetzeak egonaldi artistikoa eta ordainketa etetea ekar lezake, baita laguntza itzuli behar izatea ere, Balorazio batzordeak hala egitea egokitzat jotzen badu.

11.2. Antolatzaileek aldaketak egiteko edo oinarri hauetan arautzen ez diren ekimenei ekiteko eskubidea dute, betiere hori egiteak proiektuaren arrakastarako hobekuntzak ezartzea ekartzen badu. Oinarri hauen interpretazioa Balorazio batzordeko kideen esku soilik egongo da.

11.3. Programa honetan parte hartzeak oinarri hauetan adierazitakoaren onarpena dakar.



EAS-EZE 2019 - PROGRAMA DE INTERNACIONALIZACIÓN DE ARTE CONTEMPORÁNEO VASCO DE BITAMINE FAKTORIA

EAS-EZE es una convocatoria de creación e internacionalización de proyectos artísticos abierta dirigida a artistas que residen y trabajan en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Este programa ofrece la posibilidad de desarrollar el proyecto en la sede de Bitamine Faktoria desde la fecha de la concesión de la ayuda y una vez terminado exportarlo y presentarlo en la Ciudad de Buenos Aires en diferentes espacios referentes de la cultura contemporánea actual. Además se programa un calendario de actividades conjuntamente con las instituciones locales colaboradoras en el que el/la artista tiene diferentes participaciones en museos, espacios culturales, galerías y salas, tales como una exposición, mesas redondas, debates, *workshops*, encuentros y trabajos colectivos con artistas significativos locales, lo que le ofrece al residente una experiencia artística, formativa y personal que deseamos contribuya positivamente al desarrollo de su carrera y proceso de investigación.

1. OBJETO Y FINALIDAD

1.1. Bitamine Faktoria convoca, dentro del marco establecido por su plan de internacionalización del arte contemporáneo vasco, un proceso de selección para cubrir una ayuda económica para el desarrollo y ejecución de proyectos de investigación artística.

1.2. Los ámbitos artístico-culturales a los que se dirige este programa no están restringidos a disciplinas concretas e incluyen, entre otras, artes plásticas, artes audiovisuales, performance, intervención urbana, diseño, arte sonoro, etc.

1.3. Con este programa se pretende incentivar la investigación y la producción artística, contribuir a la promoción de los creadores, y promover la movilidad internacional de artistas.

2. PLAZO DE EJECUCIÓN

El proceso de trabajo se desarrollará desde marzo a octubre de 2019 y la estancia en la Ciudad de Buenos Aires tendrá una duración de entre 15 y 20 días, durante el mes de octubre o noviembre de 2019.

3. BENEFICIARIOS

3.1. Podrán ser beneficiarios/as de este programa todos/as aquellos/as artistas empadronados/as en la Comunidad Autónoma Vasca que deseen desarrollar un proyecto de investigación y producción artística para exportar a la Ciudad de Buenos Aires en Argentina.

3.2. Los/las solicitantes deberán tener formación y/o trayectoria artística acreditada en el campo de las artes.

3.3. Podrá presentarse una única solicitud por titular y convocatoria.

3.4. Las únicas limitaciones a estas condiciones son las impuestas por la legalidad vigente.

3.5. En el caso de que el/la propuesto/a como beneficiario/a de la ayuda sea un colectivo, la ayuda se concederá a un/a solo/a miembro del mismo.

4. DOTACIÓN ECONÓMICA Y OTROS RECURSOS

Bitamine Faktoria ofrece una ayuda integral que se compone de: billete de avión, alojamiento, manutención y traslados (hasta 350 euros), 1.000 euros netos de honorarios, cesión de espacio de trabajo y recursos en la sede de Bitamine Faktoria desde abril a octubre, acompañamiento durante todo el proceso de trabajo y durante la estancia, 500 euros de gastos de producción, impresión de un catálogo y la edición de un vídeo con el resultado del proyecto, asistencia en el montaje, y producción y gestión del programa.

5. PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES Y NOTIFICACIÓN DE CONCESIONES

5.1. Las solicitudes deberán presentarse a partir de la publicación de esta convocatoria hasta el 18 de febrero de 2019. Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes no se aceptará ninguna candidatura.

5.2. La presentación de solicitudes se realizará online rellenando el formulario de solicitud disponible en el sitio web de Bitamine Faktoria: www.bitamine.net en la pestaña de convocatorias.

5.3. En un plazo máximo de 20 días laborables desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes se comunicará por escrito a cada uno/a de los/as solicitantes el resultado de la selección.

5.4. El nombre del/la beneficiario/a será publicado en el sitio web de Bitamine Faktoria y este/a será contactado/a directamente por la persona encargada de coordinar el programa para formalizar la concesión mediante la firma de un documento de aceptación de la ayuda.

5.5. Las consultas relacionadas con este procedimiento serán atendidas a través del correo electrónico enter@bitamine.net.

6. DOCUMENTACIÓN REQUERIDA

6.1. Para realizar la solicitud, se requerirá cumplimentar el formulario de inscripción online disponible en el sitio web www.bitamine.net adjuntando la siguiente documentación:

6.1.a. Curriculum vitae artístico (5.000 caracteres máximo), con referencias a sitios web, imágenes, vídeos, etc. de los trabajos más recientes.

6.1.b Texto descriptivo del proyecto presentado (máximo 800 caracteres), statement o declaración de artista (500 caracteres máximo) y una breve biografía (800 caracteres). Estos textos deberán estar redactados en euskera y castellano y serán utilizados para la comunicación pública en caso de que el proyecto resulte finalmente seleccionado.

6.1.c. Dossier del proyecto que se desea realizar (PDF máximo 3 MB) en el que se adjunte: imágenes y/o videos, y una proposición del display expositivo que se desea llevar a la ciudad de destino teniendo en cuenta que debe ser exportable.

6.1.d. Plan de trabajo y calendario del proyecto presentado, incluyendo necesidades físicas y técnicas (4.000 caracteres máximo).

6.1.e. La solicitud se podrá realizar en uno de los idiomas oficiales de la comunidad autónoma del País Vasco. En caso de que la solicitud se rellene en euskera, se deberá añadir la traducción en castellano o inglés para que el jurado internacional pueda evaluar debidamente la propuesta.

6.2. La persona solicitante que resulte seleccionada deberá aportar la siguiente documentación:

6.2.a. Copia del documento de identidad (DNI o pasaporte).

6.2.b. Datos bancarios (incluyendo el código internacional de cuenta bancaria IBAN) para el ingreso efectivo de la ayuda.

6.2.c. Compromiso de aceptación debidamente cumplimentado y firmado.

7. PROCEDIMIENTO DE SELECCIÓN Y CRITERIOS DE VALORACIÓN

7.1. La concesión de estas ayudas se efectuará en régimen de concurrencia competitiva, de acuerdo con los principios de objetividad, transparencia, igualdad y no discriminación.

7.2. Esta convocatoria será resuelta por una Comisión de Valoración presidida por el equipo de Bitamine Faktoria, así como por artistas, gestores culturales y/o comisarios que designe la entidad coordinadora del proyecto.

7.3. La elección de la Comisión será inapelable y a ella corresponderá resolver cualquier circunstancia no prevista en estas bases.

7.4. Serán declarados beneficiarios/as de la ayuda aquellos/as solicitantes que obtengan mayor puntuación conforme a los siguientes criterios de valoración: a) el proyecto artístico presentado (50%); b) el currículum o trayectoria del/la solicitante (25%); c) la adecuación del proyecto a los recursos y contexto en que se desarrolla (15%); y d) la capacidad de mediación del/la solicitante (10%).

7.5. La Comisión entrevistará a un máximo de tres finalistas con el fin de evaluar el apartado d) del punto 7.4 referente a los criterios de evaluación.

7.6. La Comisión podrá declarar desierta la convocatoria.

8. OBLIGACIONES DE LOS/AS BENEFICIARIOS/AS

8.1. El/la beneficiario/a se compromete a desarrollar su proyecto en los plazos previstos en el calendario de trabajo presentado en sus respectivas solicitudes y a entregar una memoria justificativa al finalizar su estancia. Será indispensable presentar la memoria justificativa para recibir el 50% restante de la ayuda económica en concepto de honorarios.

8.2. El/la beneficiario/a se compromete a hacer un buen uso de las instalaciones de Bitamine Faktoria y destinar los espacios de trabajo que se le asignen exclusivamente como espacios de producción artística. Quedan, por lo tanto, excluido su uso como almacenes, depósitos, viviendas, etc.

8.3. En caso de que se necesitare realizar alguna intervención en el espacio de trabajo o en los espacios de la estancia en Buenos Aires (pintar, agujerear o cualquier otra modificación) se deberá solicitar a la persona coordinadora del programa un permiso específico para tal fin, asumiendo el beneficiario la responsabilidad de restaurar el espacio para devolverlo a su estado inicial una vez finalizado el programa.

8.4. El/la beneficiario/a mencionará en la difusión y exhibición de las piezas producidas durante su estancia que éstas han sido realizadas en el marco del programa incluyendo la siguiente leyenda: "proyecto realizado en el marco del Programa de internacionalización de arte vasco EAS-EZE 2019 de Bitamine Faktoria".

8.5. El/la beneficiario/a autoriza que se cite su nombre, así como la reproducción gráfica de su obra, en cualquier tipo de difusión o publicación que Bitamine Faktoria y sus socios consideren oportuno hacer en relación con el programa EAS-EZE y/o su actividad.

8.6. El/la beneficiario/a deberá atenerse a las normas dispuestas por Bitamine Faktoria, adaptándose a sus horarios y dinámicas de trabajo, además de mantener un comportamiento cívico y respetando las instalaciones y espacios comunes. De este modo, queda terminantemente prohibido realizar trabajos con productos tóxicos y/o con maquinaria industrial que genere ruidos por encima de lo permitido o supongan un peligro para el espacio y sus usuarios.

8.7. El/la beneficiario/a cumplirá con la programación acordada con los espacios de difusión, producción y cualquier otra actividad relacionada con la estancia en las instituciones de la ciudad de destino (Ciudad de Buenos Aires), cumpliendo debidamente con los horarios, plazos y producciones previamente concertadas en común acuerdo con el/la artista seleccionado/a.

8.8. El/la beneficiario/a se hará responsable de la contratación de un seguro de viaje que cubra la estancia en la Ciudad de Buenos Aires.

9. COMPROMISOS DE BITAMINE FAKTORIA

9.1. Bitamine Faktoria cederá a la persona beneficiaria, un espacio de trabajo con conexión wifi a internet, en caso de ser necesario.

9.2. Bitamine Faktoria se compromete al pago de honorarios por un importe total de 1.000 € netos.

9.3. Bitamine Faktoria asistirá en la medida que sea posible a la persona beneficiaria en la búsqueda de recursos, materiales y resolución de todo tipo de necesidades que surjan a la hora de preparar el proyecto de exportación y de desarrollarlo durante el periodo de la estancia.

9.4. Bitamine Faktoria contribuirá al desarrollo óptimo de los proyectos del/la beneficiario/a poniendo a disposición del/la mismo/a cuanta información y recursos le sea posible dentro de sus limitaciones presupuestarias y de personal.

9.5. Bitamine Faktoria se compromete a insertar al/la artista seleccionado/a en el entramado artístico local en la ciudad de destino organizando una serie de encuentros y actividades.

10. PAGO Y JUSTIFICACIÓN

10.1. El pago de los honorarios será del 50% por adelantado y del 50% una vez realizada la estancia, tras la entrega de la memoria y justificación de gastos. Los gastos de la ayuda del viaje (billete y alojamiento) se sufragarán directamente desde Bitamine Faktoria en común acuerdo con el/la artista seleccionado/a. Los gastos de manutención se abonarán a la persona beneficiaria mediante transferencia bancaria antes de realizar el viaje a la Ciudad de Buenos Aires.

10.2. El pago de honorarios se realizará previa presentación de factura y aplicando las retenciones fiscales correspondientes, dicha retribución se realizará mediante transferencia a la cuenta bancaria de la persona beneficiaria.

10.3. La justificación de las ayudas concedidas se realizará en Bitamine Faktoria, durante el mes siguiente a la vuelta del programa, mediante la presentación de una memoria que justifique y documente el proyecto desarrollado. El objeto de la misma es acreditar el cumplimiento de la finalidad para la que la ayuda fue concedida y de las condiciones impuestas, en su caso, con motivo de la concesión. Su presentación será condición indispensable para percibir el último pago de la ayuda económica asociada al programa.

10.4 En un plazo de tres semanas tras el regreso de su estancia en Buenos Aires el/la artista se compromete a enviar a Bitamine Faktoria dos textos que serán utilizados como contenido para el catálogo del programa EAS-EZE 2019. En el primero de ellos se recogerá la experiencia personal del artista (2.000 caracteres máximo) y en el segundo información y líneas generales del proyecto desarrollado (3.500 caracteres máximo).

11. INCUMPLIMIENTO Y OTRAS CONSIDERACIONES

11.1. El incumplimiento de lo establecido en estas bases podría suponer la interrupción de la estancia artística y del pago, así como, el reintegro de la ayuda si el Comité de Valoración lo considerara pertinente.

11.2. La organización se reserva el derecho a realizar modificaciones o tomar iniciativas no reguladas en estas bases, siempre que supongan mejoras que afecten directamente al éxito del proyecto. La interpretación de las bases dependerá exclusivamente de los miembros de la Comisión de Valoración.

11.3. La participación en este programa supone la aceptación de estas bases.